

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA. Honen bidez, Artisautza Sustatzeko dirulaguntza-programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dira, 2023 urterako.

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del Programa de Promoción de la Artesanía 2023.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailaren xedea Bizkaian aberastasuna eta kalitateko enplegua sortzen laguntzea da, Bizkaiko enpresa arloan lehiakortasun iraunkorra eta nazioartekotzea sustatuz eta, aldi berean, gure lurraldearen garapen orekatua erraztuz. Ildo horretan, estrategia integral bat jarri da abian, bost ardatz estrategikotan oinarritua: ekintzailetza eta azelerazioa; berrikuntza eta lehiakortasuna; erakartzea eta interkonexioa; lurralde-oreka, eta talentua eta ezagutza; hori guztia, balio erantsiko zerbitzuak modu eraginkorrean emateko konpromisotik abiatuta.

Misio horren esparruan, onartu nahi den foru-dekretuaren xedea Artisautza Sustatzeko 2023ko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea da, eta helburua Bizkaiko artisautza-sektorea dinamizatzeko dirulaguntzak ematea.

Ekonomia Sustatzeko Sailaren 2020-2023 aldiko Dirulaguntzen Plan Estrategikoak dirulaguntzen lerro bat aurreikusten du artisautza sustatzeko proiektuak egiteko,

La misión del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia es contribuir a la creación de riqueza y empleo de calidad en Bizkaia, impulsando la competitividad sostenible y la internacionalización en el ámbito empresarial de Bizkaia al tiempo que facilitar el desarrollo equilibrado del Territorio. Para ello se ha puesto en marcha una estrategia integral basada en cinco ejes estratégicos: emprendimiento y aceleración, innovación y competitividad, atracción e interconexión, equilibrio territorial y talento y conocimiento; todo ello desde el compromiso de una prestación eficiente de servicios de valor añadido.

En el marco de esta misión, el decreto foral que se pretende aprobar tiene por objeto aprobar las bases reguladoras y convocatoria del Programa de Promoción de la Artesanía 2023 y su finalidad es conceder subvenciones destinadas a dinamizar el sector de la artesanía de Bizkaia.

El Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 del Departamento de Promoción Económica prevé una línea de subvenciones con destino a proyectos para



bai enpresentzat, bai artisautza-elkarteentzat, eta Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aurrekontu Orokorretan urtero esleitzen dira horiek gauzatzeko behar diren kredituak. Horretarako, beharrezkoa da dirulaguntzoi buruzko araudia ezartzea. Dirulaguntzen lerro horren helburua da artisautza sustatzea eta artisautza sustatzeko programaren bidez aipatutako Plan Estrategikoaren helburu estrategikoa lortzen laguntzen du, hau da, “Bizkaia, lurralde orekatua”.

Artisautza sustatuz, hobetu egin nahi da arlo horretaz jendeak duen iritzia, eta gure gizartearen ongizate kultural, sozial eta ekonomikoan oro har duen balioa ikusarazi.

Era berean, Bizkaiko artisautza-sektorea indartu nahi da, jarduera profesional gisa, artisau-lanen kalitatea bultzatuz eta ikuspegi berritzaileak sustatuz, trebetasun eta negozio-eredu berrien bitartez.

II

Xedapenaren xede den gaiaren gaineko eskumena Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio, hala ezarrita baitago Euskal Autonomi Erkidego Osorako Erakundeen eta Lurralde Historikoetako Foru Erakundeen arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 6.1. eta 7a)12. artikuluetan. Horien bidez zehazten da, beste eskumen batzuen artean, lurralde historikoetako foru-

el fomento de la artesanía, dirigido tanto a empresas como asociaciones de artesanía, y en los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia se vienen consignando cada año los créditos precisos para hacerlas efectivas, a cuyo efecto se hace necesario establecer su normativa reguladora. Dicha línea de subvenciones tiene como objetivo el fomento de la artesanía y contribuye a alcanzar el objetivo estratégico del citado Plan Estratégico de “Bizkaia, un territorio equilibrado” mediante el Programa de Promoción de la Artesanía.

La promoción de la artesanía tiene como objetivo elevar la valoración de la artesanía como parte integral del bienestar cultural, social y económico de nuestra sociedad.

Asimismo, se pretende fortalecer el sector de la artesanía de Bizkaia, como actividad profesional, impulsando la calidad de los trabajos artesanos y fomentando enfoques innovadores, mediante el desarrollo de nuevas habilidades y modelos de negocio.

II

La competencia sobre la materia objeto de la disposición corresponde a la Diputación Foral de Bizkaia, en base a lo dispuesto en los artículos 6.1 y 7 a)12 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos mediante los que se concreta que, entre otras competencias, los órganos



organoek eskumen eskusiboa dutela artisautzaren arloan.

Ekonomia Sustatzeko Foru Sailaren Egitura Organikoari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 17ko 207/2019 Foru Dekretuak Ekonomia Sustatzeko Foru Sailari esleitzen dio artisautza sustatzearen arloko jarduna.

III

Foru-dekretu honek betetzen ditu erregulazio onaren printzipioak, zeinak aurreikusten baitira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan (dekretu horren bidez, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen da); manuok bete egin dira xedapena egin eta izapidetzeko orduan, eta txosten hauek eman dira:

1. Genero-inpaktuaren aurretiazko ebaluazioa.
2. Ekonomia Sustatzeko Sailaren txosten juridikoa.
3. Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena.
4. Memoria ekonomiko-administratiboa eta erregulazio onaren printzipioei

Forales de los Territorios Históricos tienen competencia exclusiva en Artesanía.

El Decreto Foral 207/2019, de 17 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Estructura Orgánica del Departamento de Promoción Económica, asigna al Departamento de Promoción Económica la actuación en el fomento de la artesanía.

III

El presente decreto foral responde a los principios de buena regulación previstos en los artículos 129 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y 3 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia, cuyas disposiciones se han observado en su elaboración y tramitación, habiéndose emitido los siguientes informes:

1. Evaluación preliminar del impacto de género.
2. Informe jurídico del Departamento de Promoción Económica.
3. Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función del Género.
4. Memoria económico-administrativa y de principios de buena regulación.



buruzkoa.

5. Kontrol ekonomikoari buruzko txostena.

6. Legezketasunari buruzko txostena.

Era berean, genero-ikuspegia jaso da foru-dekretu hau prestatzeko orduan, kontuan hartuta zer xedatzen den arau hauetan: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua eta Bizkaiko Foru Aldundiaren azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretua, zeinaren bidez generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak ezartzen baitira (ebaluazio hori 4/2005 Legean dago aurrez ikusita). Ildo horretan, lehen adierazi den bezala, foru-dekretu honen izapidetzean generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena sartu da.

Era berean, kontuan hartu da zer ezarrita dagoen hala maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan (haren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren, haren erakunde autonomoen eta foru-sektore publikoaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak ezartzen dira), nola Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gidan (Bizkaiko Foru Aldundiaren

5. Informe de control económico.

6. Informe de legalidad.

Asimismo, se incorpora la perspectiva de género en la elaboración del presente decreto foral, en cumplimiento de la Ley 4/2005, de 18 de febrero para la igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres y del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa del impacto en función del género prevista en la Ley 4/2005. En este sentido, en la tramitación de este decreto foral se incorpora, como se ha indicado previamente, el Informe de Evaluación Previa del Impacto en función del género.

Igualmente se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019, de 28 de mayo, por el que se establecen los criterios de uso de las lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia, de sus organismos autónomos y del sector público foral y lo dispuesto en la “Guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia” aprobada por



otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 16/2018, de 27 de febrero.

IV

IV

Oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak salbuetsirik daude aurretik Europako Batzordeari jakinarazi behar izatetik, honako araudia dela bide: 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EB) Erregelamendua, Batzordearena, zeinak zehazten baitu de minimis laguntzei nola aplikatu behar zaizkien Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua; eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

Las subvenciones cuyo régimen se establece en estas bases están exceptuadas de la obligación de notificación previa a la Comisión Europea en virtud del Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis y del Reglamento (UE) n.º 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

V

V

Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 16.1. artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzen emakida arautuko duten oinarriak onesteko foru-dekretu bidez, aurretik zerbitzu juridikoak txostena emanda; eta Dirulaguntzen Erregelamendua onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1. artikulua aukera ematen du oinarri arautzaileak eta deialdia batera izapidetzeko, eta ezartzen du Bizkaiko

El artículo 16.1 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones mediante decreto foral, previo informe del servicio jurídico; y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria,



Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak duela haiek onesteko ahalmena.

Halaber, Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Funtzionamenduari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailtako gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Horrela, bada, kasu honetan Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio foru-dekretuaren proiektu hau proposatzea.

Hori dela bide, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuak proposatuta, eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2023ko apirilaren 4ko bileran aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

2023. urterako Artisautza Sustatzeko dirulaguntza programako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dira, eta honen ondoren doa haren testua.

Xedapen gehigarri bakarra. *Izaera*

residiendo en el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia la competencia para su aprobación.

Asimismo, el artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia determina que compete a los diputados forales y a las diputadas forales proponer a la Diputación Foral de Bizkaia, para su aprobación, los proyectos de decreto foral en las materias propias de su Departamento. Así, en el presente caso corresponde a la diputada foral de promoción económica proponer este proyecto de decreto foral.

En su virtud, a iniciativa de la diputada foral de promoción económica, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia en su reunión de 4 de abril de 2023.

DISPONGO:

Artículo único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del programa de subvenciones para la Promoción de la Artesanía 2023 cuyo texto se incluye a continuación.

Disposición adicional única. *Protección de*



pertsonaleko datuen babesa.

1. Interesdunak ematen dituen datuak foru-dekretu honetatik eratortzen diren prozedurak kudeatzeko erabiliko dira, kontuan harturik zer ezartzen den honako xedapen hauetan: 2016/679 Erregelamendua (EB), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa; 95/46/EE Zuzentaraua (datuen babesari buruzko Erregelamendu orokorra) baliogabetzen duena; eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalen Babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzkoa.

2. Datu horiek inola ere ez dira erabiliko, eta ez zaizkie hirugarren batzuei lagako, interesdunak argi eta garbi ados dagoela adierazi ezean edo goian aipaturiko araudian ezartzen diren kasuetan izan ezik.

3. Edozein bide erabiliz eskaerak egin, eta interesdunek administrazio publikoen eskuetan dauden datu pertsonalak ematen badituzte, eskaeraren hartzailea den organoak beharrezko egiaztatze-lanak egiteko aukera izango du, dituen eskumenen barruan, datuak benetakoak direla egiaztatzeko.

datos de carácter personal.

1. Los datos aportados por la persona interesada se utilizarán para la gestión de los procedimientos que se deriven del decreto foral, de acuerdo con lo previsto en el Reglamento (UE) n.º 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y por el que se deroga la Directiva 95/46/CE (Reglamento general de protección de datos) y en la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de protección de datos personales, y garantía de derechos digitales que adapta y completa la normativa europea.

2. En ningún caso los referidos datos serán objeto de tratamiento o de cesión a terceras partes, si no es con el consentimiento inequívoco de la persona afectada, o en los supuestos previstos en la normativa antes indicada.

3. Cuando se formulen las solicitudes por cualquier medio en las que la persona interesada declare datos personales que obren en poder de las Administraciones Públicas, el órgano destinatario de la solicitud podrá efectuar en el ejercicio de sus competencias las verificaciones necesarias para comprobar la exactitud de los datos.



4. Araudi horretan xedatzen dena betetzeko, interesdunak honako eskubide hauek baliatu ahal izango ditu datuen tratamenduaren arduradunaren aurrean: datuetan sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko (“ahaztua izateko eskubidea”), aurkaratzeko, haien tratamendua mugatzeko eta datuok eramangarri izateko eskubideak, bai eta tratamendu automatizatuan soilik oinarrituriko erabakien xede ez izatekoa (barne harturik profilen sorrera) ere, baldin eta erabakiak eragin juridikoak badakarzkio edo, modu bertsuan, beragan eragin nabarmenik badu. Era berean, edozein momentutan errebokatu ahal izango du emandako baimena. Horrez gain, eskubidea du erreklamazioa jartzeko Datuen Babesaren Kontrol Agintaritzan. Gai honi buruzko informazio guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunean dago eskuragarri, datuen babesari buruzko atalean (<https://web.bizkaia.eus/eu/datuen-babesa>).

Xedapen iragankor bakarra. *Aurreko urteko Artisautza Sustatzeko programa aplikatzea.*

Xedapen iragankor honetan adierazitako araudiaren babesean aurkeztutako eskaeren ondoriozko itzultze-prozedurak, zehapen-prozedurak, errekurtsioak, berrikuspenak eta bestelako gorabeherak maiatzaren 10eko 72/2022 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera

4. En cumplimiento de lo dispuesto en la citada normativa, la persona interesada podrá ejercer ante la responsable del tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, supresión (“derecho al olvido”), oposición, limitación del tratamiento, a la portabilidad de sus datos, y a no ser objeto de una decisión basada únicamente en el tratamiento automatizado, incluida la elaboración de perfiles, que produzca efectos jurídicos en él o le afecte significativamente de modo similar. De igual modo, podrá revocar el consentimiento prestado en cualquier momento. También dispone del derecho a presentar una reclamación ante la Autoridad de Control de Protección de Datos, pudiendo ampliar esta información en el apartado dedicado a la protección de datos de la página web institucional de la Diputación Foral de Bizkaia (<https://web.bizkaia.eus/es/proteccion-de-datos>).

Disposición transitoria única. *Aplicación del Programa de Promoción de la Artesanía del año anterior.*

Los procedimientos de reintegros, procedimientos sancionadores, recursos, revisiones y cualquier otro incidente derivado de solicitudes presentadas al amparo de la regulación indicada en esta disposición transitoria serán resueltos conforme a lo establecido en el Decreto



ebatziko dira.

Foral 72/2022, de 10 de mayo.

Xedapen indargabetzaile bakarra. *Aurreko urteko Artisautza Sustatzeko dirulaguntza-programa indargabetzea.*

Disposición derogatoria única. *Derogación del programa de subvenciones Promoción de la Artesanía del año anterior.*

Foru-dekretu hau indarrean jartzen denean, indargabeturik geratuko da maiatzaren 10eko 72/2022 foru-dekretua, Artisautza Sustatzeko 2022ko Programaren oinarri arautzaileak eta deialdia onesten dituen; hala ere, aplikatu daiteke beraren indarraldiaren barruan sortutako egoeretan, xedapen iragankor bakarrean aurreikusitakoarekin bat.

A la entrada en vigor del presente decreto foral, queda derogado el Decreto Foral 72/2022, de 10 de mayo, por el que se aprueban las bases reguladoras y convocatoria del Programa de Promoción de la Artesanía 2022, sin perjuicio de su aplicación a las situaciones creadas bajo su vigencia en los términos previstos en la Disposición transitoria única.

Azken xedapenetako lehena. *Ahalmenak eskuordetzea.*

Disposición final primera. *Delegación de facultades.*

1. Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari, foru-dekretu honetan xedatzen dena garatu, betearazi eta aplikatzeko beharrezko xedapen guztiak eman ditzan, baita dirulaguntzen emakida ere.

1. Se faculta a la diputada foral de promoción económica para dictar cuantas disposiciones resulten procedentes en orden al desarrollo, ejecución y aplicación de lo previsto en el presente decreto foral, incluida la concesión de subvenciones.

2. Halaber, Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari ahalmena ematen zaio, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 32.4. artikuluan jasotako kasua gertatzen bada edo aurrekontu hornidura agortu edo areagotzen bada, eskabideak aurkezteko epea luzatu edo ixteko.

2. Asimismo, se faculta a la diputada foral de promoción económica para acordar la ampliación o cierre del plazo de presentación de solicitudes, en caso de que se dé el supuesto previsto en el artículo 32.4 de la Ley 39/2015 o que se agote o incremente la dotación presupuestaria.

3. Era berean, Ekonomia Sustatzeko foru

3. Asimismo, se faculta a la diputada foral



diputatuari ahalmena ematen zaio beste dirulaguntza-deialdi batzuk egiteko, aurrekontuko diru-hornidura amaitu ezean.

de promoción económica para acordar la apertura de nuevas convocatorias de subvenciones para el supuesto de no agotarse las disponibilidades presupuestarias.

Azken xedapenetako bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

1. Foru Dekretu honen bidez onetsitako oinarri arautzaileak indarrean jarriko dira “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratu ondoren. Zehazki, aldizkari horretan argitaratzen denean batera onetsi den deialdiaren zatia.

1. Las bases reguladoras aprobadas por este decreto foral entrarán en vigor, una vez publicadas en el “Boletín Oficial de Bizkaia”, el día que se publique en dicho boletín el extracto de la convocatoria que se aprueba conjuntamente.

2. Foru Dekretu honen bidez onetsitako deialdiak ondorioak izango ditu deialdiaren zatia “Bizkaiko Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunetik aurrera.

2. La convocatoria aprobada por este decreto foral tendrá efectos desde el día que se publique en el “Boletín Oficial de Bizkaia” el extracto de la convocatoria.

Bilbon, 2023ko apirilaren 4an

Dado en Bilbao, a 4 de abril de 2023

Ekonomia Sustatzeko foru diputatua/La diputada foral de Promoción Económica.
AINARA BASURKO URKIRI

Ahaldun Nagusia /El Diputado General. UNAI REMENTERIA MAIZ



ARTISAUTZA SUSTATZEKO 2023KO
PROGRAMA ARAUTZEN DUTEN
OINARRIAK ETA DEIALDIA

Aurkibidea:

I. TITULUA Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

I. KAPITULUA 1. arloa: Artisautza-
erakundeek beren lehiakortasuna
sendotzeko gauzatutako jarduerak

2. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

3. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen
egitatea.*

4. oinarria. *Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

5. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

II. KAPITULUA 2. arloa: Toki-erakundeek
eta artisautza-elkarteek bultzaturiko
jarduerak

6. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

7. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen
egitatea.*

8. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen
gastuak.*

9. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko
indibidualizatua.*

III. KAPITULUA Aurrekontuko kredituak

10. oinarria. *Aurrekontuko zuzkidura.*

II. TITULUA Araubide juridikoa

11. oinarria. *Araubide juridikoa.*

BASES REGULADORAS Y
CONVOCATORIA DEL PROGRAMA DE
PROMOCIÓN DE LA ARTESANÍA 2023.

Índice:

TÍTULO I Disposiciones generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

CAPÍTULO I Área 1. Actuaciones
desarrolladas por entidades artesanas para
reforzar su competitividad

Base 2. *Beneficiarias de la subvención.*

Base 3. *Hecho subvencionable.*

Base 4. *Gastos subvencionables.*

Base 5. *Cuantía individualizada de las
ayudas.*

CAPÍTULO II Área 2. Actuaciones
impulsadas por entidades locales y
asociaciones de artesanía

Base 6. *Beneficiarias de la subvención.*

Base 7. *Hecho subvencionable.*

Base 8. *Gastos subvencionables.*

Base 9. *Cuantía individualizada de las
ayudas.*

CAPÍTULO III Créditos presupuestarios

Base 10. *Dotación presupuestaria.*

TÍTULO II Régimen jurídico

Base 11. *Régimen jurídico.*



12. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

13. oinarria. *Arau-haustek eta zehapenak.*

14. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

15. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea.*

III. TITULUA Dirulaguntzak emateko prozedura

16. oinarria. *Dirulaguntza-eskabideak aurkezteko lekua, era eta epea eta ondorengo izapideak.*

17. oinarria. *Eskabidea egiteko beharrezko dokumentazioa.*

18. oinarria. *Eskabidea zuzentzea edo hobetzea.*

19. oinarria. *Dirulaguntza emateko prozedura.*

20. oinarria. *Eskabideak baloratzeko irizpideak.*

21. oinarria. *Ebazpena.*

22. oinarria. *Errekurtsoak.*

23. oinarria. *Dirulaguntzari uko egitea.*

24. oinarria. *Dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea.*

25. oinarria. *Emandako dirulaguntzen publizitatea.*

26. oinarria. *Onuradunak eman zaion dirulaguntzaren publizitatea egitea.*

27. oinarria. *Jakinarazpen elektronikoa.*

IV. TITULUA Gauzatzea, justifikatzea eta

Base 12. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

Base 13. *Infracciones y sanciones.*

Base 14. *Incumplimiento y reintegro.*

Base 15. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria.*

TÍTULO III Procedimiento de concesión

Base 16. *Lugar, forma y plazo en que deben presentarse las solicitudes de ayuda y subsiguientes trámites.*

Base 17. *Documentación necesaria para la solicitud.*

Base 18. *Subsanación o mejora de la solicitud.*

Base 19. *Procedimiento de concesión.*

Base 20. *Criterios de valoración de las solicitudes.*

Base 21. *Resolución.*

Base 22. *Recursos.*

Base 23. *Renuncia a la subvención.*

Base 24. *Modificación de la resolución de concesión.*

Base 25. *Publicidad de las subvenciones concedidas.*

Base 26. *Difusión de la subvención concedida por la persona beneficiaria.*

Base 27. *Notificación electrónica.*

TÍTULO IV Ejecución, justificación y



kontrola

- 28. oinarria. *Gauzatzeko epea.*
- 29. oinarria. *Justifikazio-epea.*
- 30. oinarria. *Azpikontratazioaren baldintzak.*
- 31. oinarria. *Dirulaguntzak justifikatzea.*
- 32. oinarria. *Dirulaguntza ordaintzea.*
- 33. oinarria. *Laguntzak metatzea.*
- 34. oinarria. *Laguntzen bateragarritasuna.*
- 35. oinarria. *Onuradunen beste betebeharrak.*

control

- Base 28. *Plazo de ejecución.*
- Base 29. *Plazo de justificación.*
- Base 30. *Condiciones de subcontratación.*
- Base 31. *Justificación de las subvenciones.*
- Base 32. *Pago de la subvención.*
- Base 33. *Acumulación de ayudas.*
- Base 34. *Compatibilidad de las ayudas.*
- Base 35. *Otras obligaciones de las entidades beneficiarias.*



I. TITULUA

Xedapen orokorrak

1. oinarria. *Dirulaguntzaren xedea.*

1. Dirulaguntza-programa honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

- Artisautza-erakundeak eta haien produktuak sustatzea.
- Ikuspegi berritzaileak sustatzea, trebetasun eta negozio-eredu berriak garatuz.
- Artisautza-erakundeen sorkuntza bultzatzea.
- Artisauen trebakuntza-maila hobetzea.
- Enpresen elkartegintza bultzatzea.

2. Programa hau bi jardun-arloaren bitartez gauzatuko da:

- 1. arloa: artisautza-erakundeek beren lehiakortasuna sendotzeko egindako jarduketak.
- 2. arloa: Toki-erakundeek eta artisautza-elkarteez bultzatutako jarduketak.

TÍTULO I

Disposiciones Generales

Base 1. *Objetivo de la subvención.*

1. Mediante este programa de subvenciones se pretenden alcanzar los siguientes objetivos:

- Promover las entidades artesanas y sus productos.
- Fomentar enfoques innovadores mediante el desarrollo de nuevas habilidades y modelos de negocio.
- Potenciar la creación de entidades artesanas.
- Mejorar el grado de formación de los artesanos y las artesanas.
- Fomentar el asociacionismo en este sector.

2. La puesta en práctica de este programa se llevará a cabo a través de dos áreas de actuación:

- Área 1: Actuaciones desarrolladas por entidades artesanas para reforzar su competitividad.
- Área 2: Actuaciones impulsadas por entidades locales y asociaciones de artesanía.

I. KAPITULUA

CAPÍTULO I



1. arloa: Artisautza-erakundeek beren lehiakortasuna sendotzeko gauzatutako jarduerak

Área 1. Actuaciones desarrolladas por entidades artesanas para reforzar su competitividad.

2. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 2. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Artisautza-erakundeak izan daitezke dirulaguntzen 1. arloan adierazitako dirulaguntzen onuradunak, autonomoen erregimenean dauden pertsonak, sozietate zibilak, ondasun-erkidegoak zein merkataritza-sozietateak izan.

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones contempladas en el área 1 las entidades artesanas, bien sean personas en el régimen de autónomos, comunidades de bienes, sociedades civiles o sociedades mercantiles.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Bizkaiko Artisautzako Erakundeak Erregistroan inskribatuta egotea deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea.

a) Estar inscrita en el Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia en el momento de publicación de esta convocatoria en el “Boletín Oficial de Bizkaia” y con todos los requisitos de acceso al mismo vigentes.

b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak.

b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones.

c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretako batean ere.

c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta emakidak eta ordainketak

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, y mantenerse



egiten diren unera arte mantendu.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) 42. artikuluan eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluaren aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

3. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:

a) Makinak eta tresnak eskuratzea.

b) Ekipamendu informatikoa eta softwarea eskuratzea.

c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.

d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea; bereziki, negozioen

hasta el momento de la concesión y los pagos.

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las situaciones indicadas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005.

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

Base 3. *Hecho subvencionable.*

1. Tendrá la consideración de hecho subvencionable:

a) La adquisición de maquinaria y utillaje.

b) La adquisición de equipamiento informático y software.

c) La implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos.

d) La participación en cursos de formación, especialmente para la digitalización del



digitalizazioari buruzkoetan.

- e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea.
- f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea.
- g) Azoketan parte hartzea.
- h) Kudeaketa hobetzeko kanpoko aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza.

i) Artisautza-lantegia alokatzea.

2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005 Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluan arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xedea betetzea.

4. oinarria. *Diruz lagun daitezkeen gastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan (ikusi 28. oinarria "Gauzatzeko epea") egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

negocio.

- e) El establecimiento de canal de promoción y venta online.
- f) La elaboración de materiales de promoción comercial.
- g) La participación en ferias.
- h) La consultoría externa para la mejora de la gestión, asesoría contable y fiscal.

i) El alquiler de taller artesano.

2. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere practicas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.

Base 4. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo (ver base 28 "Plazo de ejecución"), sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad, que a continuación se indican:



a) Makinak eta tresnak eskuratzea.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du erakunde eskatzaileak.

b) Ekipamendu informatikoa eta softwarearea eskuratzea.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, artisautza-jarduerari dakarkion balio erantsia justifikatu beharko du erakunde eskatzaileak.

Kontzeptu beragatik dirulaguntza lortu eta bi urte igarotakoan soilik lagunduko dira diruz ekipamendu informatikoaren erosketak.

Software-programak, gehien jota, urtebeteko lizentziaren prezioari proportzionalki dagokion zenbatekoan lagunduko dira. Erakundean zenbat langile, hainbeste lizentzia onartuko dira gehienez.

c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea.

Artisautza-jarduerako lokala egokitzeko lanen gauzatze-kostua diruz lagunduko da, baldin eta hauek hobetzeko badira soilik: produktibitatea, jarduera segurtasunez gauzatzeko baliabideak, ingurumen-egoera eta energia-eragingarritasuna.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezen, izan beharko dute jarduera hasi aurreko komunikazioa, obrak hasi aurreko komunikazioa edo, halakorik badago, obra-

a) Adquisición de maquinaria y utillaje.

Para tener consideración de subvencionable, la entidad solicitante deberá justificar el valor añadido que aporta a la actividad artesanal.

b) Adquisición de equipamiento informático y software.

Para tener consideración de subvencionable, la entidad solicitante deberá justificar el valor añadido que aporta a la actividad artesanal.

Solo se subvencionará la compra de equipamiento informático cuando hayan pasado dos años desde la obtención de subvención por este mismo concepto.

Los programas de software se subvencionarán como máximo por el importe proporcional a un año de licencia. Se admitirá un máximo de licencias igual al número de personas trabajadoras en la entidad.

c) Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos.

Se subvencionará el coste de ejecución de obras de acondicionamiento del local en el que se desarrolla la actividad artesanal, siempre que supongan una mejora de la productividad, de la seguridad en el desempeño de la actividad o de las condiciones medioambientales y eficiencia energética.

Para tener consideración de subvencionable, se deberá contar con la comunicación previa de inicio de actividad, comunicación previa de obras o, en su caso,



lizentzia.

Esku-hartze hauek ezingo dira diruz lagundu:

- Estalki edo fatxadetako erreformak edo konponketak.
- Komunen erreformak.
- Bideozaintzako edo intrusioen kontrako segurtasuneko sistemak jartzeko lanak.
- Berokuntzako edo aire girotuko instalazioak.

Erreformak egiten badira aldi berean lantegi eta etxebizitza edo saltoki diren lokaletan, edo hauek ikastaroak emateko erabiltzen badira, lantegirako erabilitako m² kopuruari dagokion portzentajearen arabera onartuko da gastua.

Erakunde eskatzaileak kontzeptu horregatik hiru urtetik beherako denboran dirulaguntza jaso duen kasuan, lokalaren aldaketa edo/eta erreforma aski arrazoituta egon beharko da diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin.

d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea; bereziki, negozioen digitalizazioari buruzkoetan.

Diruz lagunduko da prestakuntza-ikastaroetako matrikularen kostua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezen, ikastaro horiek justifika daitekeen eran eragin behar dute enpresa-jardueraren hobekuntzan.

licencia de obras.

Las siguientes intervenciones no serán subvencionables:

- Reformas o reparaciones en cubiertas o fachadas.
- Reformas de aseos.
- Instalación de sistemas de videovigilancia o de seguridad antintrusión.
- Instalaciones de calefacción o aire acondicionado.

Si se trata de reformas en locales que son, a la vez, taller y vivienda, lugar de venta o aulas de formación, se admitirá el gasto en el porcentaje correspondiente a los m² dedicados a taller.

En caso de que la entidad solicitante haya recibido subvención por este concepto en un periodo inferior a 3 años, el cambio y/o reforma de local deberá estar suficientemente motivado para tener consideración de subvencionable.

d) Participación en cursos de formación, especialmente especialmente para la digitalización del negocio.

Se subvencionará el coste de la matrícula del curso.

Para tener consideración de subvencionable deberá tratarse de cursos que repercutan en la mejora de la actividad empresarial.



Dirulaguntzen programa honen ondorioetarako prestakuntza-ikastaroen kategorian honetan ez da sartzen Lanbide Heziketako ikastetxeek edo unibertsitateek emandako irakaskuntza arautua.

e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea.

Artisautza-jarduerari buruzko webgune bat egin eta eguneratzea, bai eta web horretan onlineko salmenta-kanal bat sartzea ere, diruz lagunduko da.

Era berean, honako hauetan integratzeko kostuak ere sartzen dira: sare sozialak, hirugarrenen atariak edo sustapen eta komertzializazio bateratuan diharduten Interneteko plataforma elkartuak.

f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea.

Diruz lagunduko da euskarri fisikoa duten sustapen-materialen kostua, hala nola, eskuorriak, kartelak, etab.

Atal honetan, halaber, diruz lagundu ahal izango da merkataritza-marka bat sortzeko eta/edo erregistratzeko kostua.

g) Azoketan parte hartzea.

Diruz lagunduko da artisautza xede nagusia duten eta gutxienez bi egun diharduten azoketan parte hartzeko zoruaren eta standaren alokairua.

Artisautza-erakundeek azokan aurkeztu behar dituzte Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan inskribatuta

A los efectos de este programa de subvenciones, no se incluye en esta categoría de cursos de formación la enseñanza reglada impartida por centros de Formación Profesional o Universidades.

e) Establecimiento de canal de promoción y venta online.

Se subvencionará el coste de elaboración y actualización de una página web referida a la actividad artesana, así como la implementación de un canal de venta on line en dicha web.

Asimismo, se incluyen los costes de integración en redes sociales, portales de terceros o plataformas agrupadas de internet dedicadas a la promoción y comercialización conjunta.

f) Elaboración de materiales de promoción comercial.

Se subvencionará el coste de elaboración de los materiales promocionales en soporte físico tales como folletos, cartelería, etc.

También será subvencionable en este apartado el coste de creación y/o registro de una marca comercial.

g) Participación en ferias.

Se subvencionará el alquiler de suelo y stand para participar en ferias cuyo objeto principal sea la artesanía y con al menos dos días de duración.

Las entidades artesanas deberán participar en la feria con productos de la actividad en la que se encuentran inscritas en el Registro



dauden jarduerari dagozkion produktuak.

h) Erakundearen kudeaketa hobetzeko kanpo aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza.

Erakundearen kudeaketa hobetzeko kanpo aholkularitzaren kostua diruz lagunduko da, baita kontabilitate eta zerga aholkularitzaren kostua ere.

i) Artisautza-lantegia alokatzea.

Eskulan jarduera burutzen den lokala alokatzeko kostua diruz lagunduko da.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2022an lehen aldiz inskribatutako erakundeentzat, diruz lagundu ahal izango dira artisautza-lantegiaren 2022ko alokairu-errentak. 2023an inskribatuentzat, inskripzioetik aurrerako hiletan soilik.

Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan 2022 aurretik inskribatutako erakundearen kasuan, diruz lagundu daitekeen gastutzat joko dira 2023ko alokairuari dagozkionak, baldin eta aurten lokal berri baterako aldaketa egon bada, lehengoak jada ez dituelako betetzen lantegi gisa erabilia izateko behar diren baldintza teknikoak edo edukierazkoak.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo dadin, banaka eta beste higiezinetatik bananduta eskrituratutako ondasun bati dagozkion kokapena izan beharko da, salbu eta lokal handiago baten zati baten alokairuari dagozkionean, baldin eta lokal horretan gauzatzen diren jarduerak oro har artisautza-izaerakoak badira. Orobat,

de Entidades Artesanas de Bizkaia.

h) Consultoría externa para la mejora de la gestión, asesoría contable y fiscal.

Se subvencionará el coste de consultoría externa para la mejora de la gestión de la entidad, así como el coste de asesoría contable y fiscal.

i) Alquiler de taller artesano.

Se subvencionará el coste de alquiler del local donde se realiza la actividad artesana.

Para las entidades inscritas en el Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia por primera vez en 2022, serán subvencionables las rentas de alquiler del taller artesano de 2023. Para las inscritas en 2023, sólo los meses a partir de su inscripción.

En el caso de entidades inscritas en el Registro de entidades artesanas de Bizkaia con anterioridad a 2022, se considerarán subvencionables los gastos del alquiler de 2023, cuando en el año actual se hubiera producido un traslado a un nuevo local por haber perdido el antiguo las condiciones técnicas o de capacidad necesarias para ser destinado a taller.

Para tener consideración de subvencionable, el local deberá estar escriturado individual y separadamente de otros inmuebles, salvo que corresponda al alquiler de una parte de un local mayor en el que el conjunto de las actividades que se realicen tengan carácter artesanal. Asimismo, su destino no puede ser el de



ezingo da etxebizitza gisa erabili.

2. Honako hauek ez dira joko diruz lagun daitekeen gastutzat:

a) Proiektu-fasearen kostuak, ez lokala egokitzeko obrari dagozkion tasak.

b) Bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.

c) Garraio-gastuak.

d) Enbalaje-gastuak.

e) Material suntsikor-gastuak edo kontsumigarri-gastuak.

f) Buzoi bidezko banaketa-gastuak.

g) Erakusleihoetako apaingarri-gastuak.

h) Altzariak eskuratzea.

i) Argazki-kamerak eta telefonia mugikorrek gailuak eskuratzea.

j) Leasing-a, behin iritsi ondoren haren jatorrizko urteko deialdian aurreikusitako diruz lagun daitekeen gehieneko baliora.

k) Finantza-gastuak.

l) Zergak eta tasak, baita BEZa ere, salbu eta erakunde onuradunak ezin duenean berreskuratu edo konpentsatu.

m) Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura dagoen kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan

vivienda.

2. No se considerarán gastos subvencionables:

a) Los costes de la fase de proyecto, ni las tasas asociadas a la obra de acondicionamiento del local.

b) Los gastos de viajes, alojamiento y manutención.

c) Los gastos de transporte.

d) Los gastos de embalajes.

e) Los gastos de materiales fungibles o consumibles

f) Los gastos de buzoneo.

g) Los gastos de elementos decorativos de escaparates.

h) Los de adquisición de mobiliario

i) La adquisición de cámaras fotográficas y aparatos de telefonía móvil.

j) El leasing, una vez se haya alcanzado el valor máximo subvencionable contemplado en la convocatoria del año de origen del mismo.

k) Los gastos financieros.

l) Los impuestos y tasas, incluyendo el IVA, excepto en el caso en que no pueda ser recuperado o compensado por la entidad beneficiaria.

m) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora cuando no se den las condiciones establecidas en el artículo 27.7.d) de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, para su



gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnean. Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2. artikuluan ezarritako kasuetan.

n) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.

o) Deialdi bakoitzean ezarritako exekuzio-epean fakturatzeko ez diren gastuak.

p) Ezarritako justifikazio-aldia amaitu ondoren ordaindutako gastuak.

q) Merkatuko balioa gainditzen duten gastuak.

r) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

3. Ondasun inbentariagarriak, baldin eta osorik edo zati batean dirulaguntzen bidez eskuratu, eraiki, birgaitu edo hobetu badira, dirulaguntzaren xede zehatzerako erabili beharko dira, gutxienez bost urtez erregistro publiko batean inskriba daitezkeen ondasunetan, eta bi urtez gainerakoetan.

4. Dena dela, diruz lagun daitezkeen

consideración como subvencionables. A estos efectos se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 53.2 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones.

n) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención.

o) Los gastos que no se facturen en el plazo de ejecución establecido en cada convocatoria.

p) Los gastos abonados después de la finalización del periodo de justificación establecido.

q) Los gastos que sean superiores al valor del mercado.

r) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.

3. Los bienes inventariables cuya adquisición, construcción, rehabilitación o mejora se hubiera realizado, en todo o en parte, mediante subvenciones habrán de destinarse al fin concreto para el que se concedió la subvención durante un plazo que no será inferior a cinco años en los bienes inscribibles en un registro público y a dos años en los restantes.

4. Cuando el importe del gasto



gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean 9/2017 Legea) kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, hau da, 15.000 euro edo gehiago hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

5. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzen ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

5. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko indibidualizatua.*

1. Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira behean ezartzen diren gehieneko dirulaguntza-portzentaieak eta gehieneko mugak:

subvencionable supere las cuantías establecidas en Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector público (en adelante Ley 9/2017), para el contrato menor, es decir sea un importe igual o superior a 15.000 € en caso de suministros y servicios, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contracción del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

5. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Base 5. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

1. El importe de la ayuda se obtendrá teniendo en cuenta los porcentajes máximos de subvención y los límites máximos que se establecen a continuación:

Gastu mota / Tipo de gasto	Jarduketa /Actuación	Dirulaguntzaren gehieneko %a /	Gehieneko dirulaguntza
-------------------------------	----------------------	-----------------------------------	---------------------------

		% máximo de subvención	(€)/ Subvención máxima (€)
Inbertsio-gastuak/ Gastos destinados a inversiones	a) Makinak eta tresnak eskuratzea / Adquisición de maquinaria y utillaje.	50	6.500
	b) Ekipamendu informatikoa eta softwarea eskuratzea / Adquisición de equipamiento informático y software.	50	2.500
Beste gastu batzuk/ Otros gastos	c) Artisautza-lantegiak ezarri, zabaldu edo eraldatzea / Implantación, ampliación o reforma de talleres artesanos.	50	3.000
	d) Prestakuntza ikastaroetan parte hartzea / Participación en cursos de formación.	90	1.500
	e) Sustapen-kanala eta online-salmenta ezartzea / Establecimiento de canal de promoción y venta online.	90	2.500
	f) Sustapen komertzialeko materialak ontzea / Elaboración de materiales de promoción comercial.	50	500
	g) Azoketan parte hartzea / Participación en ferias.	90	2.500
	h) Erakundearen kudeaketa hobetzeko kanpo aholkularitza, eta kontabilitate eta zerga aholkularitza / Consultoría externa para la mejora de la gestión, asesoría contable y fiscal.	50	5.000



	i) Artisautza-lantegia alokatzea / Alquiler de taller artesano.	50	2.000
--	---	----	-------

2. Arlo honetako gehieneko dirulaguntza 10.000 eurokoa izango da erakunde onuradun eta deialdi bakoitzeko.

2. El límite máximo de subvención de este área por entidad beneficiaria y convocatoria es de 10.000 euros.

II. KAPITULUA

CAPÍTULO II

2. arloa: Toki-erakundeek eta artisautza-elkarteek bultzaturiko jarduerak

Área 2. Actuaciones impulsadas por entidades locales y asociaciones de artesanía.

6. oinarria. *Dirulaguntzaren onuradunak.*

Base 6. *Beneficiarias de la subvención.*

1. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-erakundeak eta nortasun juridikoa duten artisautza-elkarteak izan daitezke dirulaguntzen 2. arloan adierazitako dirulaguntzen onuradunak.

1. Podrán acceder a la consideración de personas beneficiarias de las subvenciones contempladas en el área 2 las entidades locales y las asociaciones de artesanía con personalidad jurídica propia del Territorio Histórico de Bizkaia.

2. Aurreko atalean adierazitako erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte dirulaguntzaren onuradun izateko:

2. Las entidades indicadas en el apartado anterior deberán cumplir los siguientes requisitos para obtener la condición de entidad beneficiaria de la subvención:

a) Bizkaiko Artisautzako Erakundearen Erregistroan artisautza-erakunde moduan inskribatuta egotea deialdi hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratzen den unean, eta bertan sartzeko baldintza guztiak betetzea, salbu eta toki-erakundeak eta haien erakunde autonomiadunak.

a) Encontrarse inscrita como asociación en el Registro de entidades artesanas de Bizkaia en el momento de publicación de esta convocatoria en el “Boletín Oficial de Bizkaia” y con todos los requisitos de acceso al mismo vigentes, a excepción de las Entidades Locales y sus organismos autónomos.



- b) Egunean edukitzea zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak. Era berean, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren (aurrerantzean, 38/2003 Legea) 13.3. bis artikulua araberak, 30.000,00 eurotik gorako dirulaguntzetarako, merkataritza-eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen (aurrerantzean 3/2004 Legea) aplikazio-eremuan dauden pertsonak baino ez badira eskatzaileak, lege horretan aurreikusitako ordainketa-epeak bete beharko dituzte.
- c) Ez egotea Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren (aurrerantzean 5/2005 Foru Araua) 12. artikuluan jasotako debeku-egoeretak batean ere.

Baldintza guztiak bete behar dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean, eta emakidak eta ordainketak egiten diren unera arte mantendu.

3. Ezingo dute deialdi honetan parte hartu, ezta onuradun izan ere, honako hauek:

- a) Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018

- b) Encontrarse al corriente de sus obligaciones tributarias, frente a la Seguridad Social y por reintegro de subvenciones. Asimismo, de acuerdo al artículo 13.3 bis de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante Ley 38/2003), para subvenciones de importe superior a 30.000,00 euros cuando las personas solicitantes sean únicamente personas incluidas en el ámbito de aplicación de la Ley 3/2004, de 29 de diciembre, por la que se establecen medidas de lucha contra la morosidad en las operaciones comerciales (en adelante Ley 3/2004) deberán cumplir los plazos de pago previstos en la citada Ley.

- c) No encontrarse incurso en ninguna de las circunstancias que establece el artículo 12 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral (en adelante Norma Foral 5/2005).

Todos los requisitos deberán cumplirse a fecha de finalización del plazo de presentación de solicitudes, y mantenerse hasta el momento de la concesión y los pagos.

3. No podrán concurrir a la presente convocatoria, ni resultar beneficiarias:

- a) Las personas físicas y jurídicas, públicas o privadas, que están en alguna de las



Foru Arauaren 42. artikuluan (aurrerantzean 4/2018 Foru Araua) eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta 4/2005 Legearen 21.bis.2 artikuluan adierazitako egoeretako batean dauden pertsona fisiko eta juridikoak, publikoak zein pribatuak.

b) Pertsona fisikoak eta juridikoak, publikoak edo pribatuak, administrazioaren ebazpen irmo bidez zigortuak izan direnak Tratu berdintasunaren eta diskriminazio ezaren uztailaren 12ko 15/2022 Lege Integralaren IV. tituluan aurreikusitako termino eta epeetan oso larri gisa kalifikatutako arau-hausteengatik.

situaciones indicas en el artículo 42 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio para la Igualdad de Mujeres y Hombres (en adelante Norma Foral 4/2018) y en alguna de las indicadas en el artículo 21.bis.2 de la Ley 4/2005.

b) Las personas físicas o jurídicas, públicas o privadas sancionadas por resolución administrativa firme por alguna de las infracciones calificadas como muy graves, en los términos y plazos previstos en el Título IV de la Ley 15/2022, de 12 de julio, integral para la igualdad de trato y la no discriminación.

7. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

1. Honako hauek joko dira diruz laguntzeko egitatetzat:

- a) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.
- b) Artisautza-azokak antolatzea Bizkaian.
- c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak.
- d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.

2. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango sexua edo 4/2005

Base 7. *Hecho subvencionable.*

1. Tendrán la consideración de hecho subvencionable:

- a) La organización de actividades de formación dirigidas a entidades artesanas.
- b) La organización de ferias de artesanía en Bizkaia.
- c) Las actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia.
- d) Las actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector.

2. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad que



Legearen 3.1 artikuluan jasotako askotariko diskriminazio faktoreak direla-eta diskriminatzailea den jarduera.

3. Ez da dirulaguntza jaso dezakeen egitatea izango 15/2022 Legearen IV. tituluaren arau-hauste gisa kalifikatutako praktikak erasotzen, suspertzen edo onartzen dituen jarduera edo xedea betetzea.

sea discriminatoria por razón de sexo o por aquellos factores de discriminación múltiple contemplados en el art. 3.1 de la Ley 4/2005.

3. No tendrá la consideración de hecho subvencionable cualquier actividad o cumplimiento de finalidad que atente, aliente o tolere practicas calificadas como infracciones en el Título IV de la Ley 15/2022.

8. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketengastuak.*

1. Diruz lagun daitezkeen gastutzat joko dira proiektu edo jardueraren izaerari eta garapen normalari erantzuten dioten eta epearen barruan (ikusi 28. oinarria Gauzatzeko epea) egin diren beharrezko gastu hauek, betiere indarreko arautegiaren arabera behar bezala justifikatu badira:

a) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea.

Artisautza-erakundeentzako prestakuntza-ikastaroen irakasleen kostua, sustatzeko materialaren eta material didaktikoaren gastuak diruz lagunduko dira; bereziki, artisau-produktuak sustatzeko eta saltzeko Internet eta sare sozialak erabiltzeari buruzko ikastaroak eta negozioek digitalizazioan aurrera egiteari buruzkoak.

Ikastarora joatearen kostua txikiagoa

Base 8. *Gastos subvencionables.*

1. Se considerarán gastos subvencionables, aquellos que, siendo correctamente justificados de conformidad con la normativa en vigor, se hayan ejecutado en plazo (ver base 28 “Plazo de ejecución”), sean necesarios y respondan a la naturaleza y al normal desarrollo del proyecto o actividad, que a continuación se indican:

a) La organización de actividades de formación dirigidas a entidades artesanas.

Se subvencionará el coste de personal docente, material didáctico y material de promoción de cursos de formación dirigidos a entidades artesanas, con especial atención a cursos sobre el uso de internet y redes sociales para la promoción y venta de los productos artesanos y el avance de los negocios en la digitalización.

El coste de asistencia al curso deberá ser



izango da Bizkaiko artisautza-erakundeentzat.

Horrez gain, egiaztatu beharko da bertaratzen diren artisau-erakundeek % 50etik gora bizkaitarrak direla, salbu eta kurtsora joateko eskaera egiten duten artisautza-erakunde bizkaitarren kopurua ez bada ehuneko horretara heltzen; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da inguruabar hori.

b) Artisautza-azokak antolatzea Bizkaian.

Diruz lagunduko da Bizkaian gutxienez 2 eguneko iraupena duten artisautza-azokak antolatzearen kostua.

Diruz lagun daitekeen gastutzat jo daitezen, Bizkaiko Artisautzako Erakundeek Erregistroan azaltzen diren erakunde guztiei helarazi beharko zaie azokari buruzko informazioa.

Azokan parte hartzeko zoruaren eta standaren alokairu kostua txikiagoa izan beharko du Bizkaiko artisautza-erakundeentzat.

Artisautza-erakundeek azokan aurkeztu behar dituzte nork bere Artisautzako Erakundeek Erregistroan inskribatuta dagoen jarduerari dagozkion produktuak.

Era berean, erakunde parte-hartzaile guztiek, azoka egiten den egunean, frogatu beharko dute alta emanda dagoela nor bere erregistroan. Hala ere, erakunde parte-hartzaileak jarduera gauzatzen duen lekuan erregistrorik ez badago, egiaztatu

inferior para entidades artesanas de Bizkaia.

Asimismo, deberá acreditarse que más del 50% del total de entidades artesanas asistentes son de Bizkaia, excepto que el número de entidades artesanas de Bizkaia que solicitaran asistir al curso no alcanzase dicho porcentaje, en cuyo caso se deberá justificar dicho extremo debidamente.

b) La organización de ferias de artesanía en Bizkaia.

Se subvencionará el coste de la organización de ferias de artesanía con una duración mínima de 2 días en Bizkaia.

Para tener consideración de subvencionable, se deberá informar sobre la feria a todas las entidades que figuran en el Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia.

El coste de alquiler de suelo y stand para participar en la feria deberá ser inferior para las entidades artesanas de Bizkaia.

Las entidades artesanas deberán participar en la feria con productos de la actividad en la que se encuentran inscritas en sus respectivos Registros de Entidades Artesanas.

Asimismo, todas las entidades participantes deberán justificar que están inscritas como entidades artesanas en sus respectivos registros a la fecha de celebración de la feria. No obstante, en caso de no existir registro en la zona donde



beharko du data horretan alta emanda dagoela dagokion Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafean.

Artisautzako produktuen elaborazioan ezagutza erakusten duten bizkaitarrek azokan parte hartu ahal izango dute baldin eta, Bizkaiko Artisanen Erregistroan alta emanda egon ez arren, galtzeko arriskuan diren artisautza-ofizioetako bat praktikatzan badute eta azokan parte hartuko duten denboraren zati bat ofizio hori erakusteko erabiltzen badute.

Horrez gain, egiaztatu beharko da parte hartzen duten artisaunen % 50etik gora bizkaitarrak direla, salbu eta azokan parte hartzeko eskaera egiten duten artisaun bizkaitarren kopurua ez bada ehuneko horretara heltzen; kasu horretan, behar bezala justifikatuko da inguruabar hori.

Halere, honako arau hauetan artisautza-ofiziotzat jotzen ez diren ofizioei dagokien guztizko parte-hartzearen % 15etik beherako parte-hartzea onartuko da: Ekonomia Sustatzeko foru-diputatuaren 11120/2021 Foru Agindua, azaroaren 30ekoa, horren bidez Bizkaiko Artisanlanbideen Bilduma onartzen da, edo gerora hauek aldatzen edo ordeztzen dituzten xedapenak.

c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak.

Diruz lagunduko dira Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduerak

la entidad participante desarrolla su actividad, ésta deberá acreditar que, a dicha fecha, figura en estado de alta en su correspondiente epígrafe en el Impuesto de Actividades Económicas.

Se permitirá la participación en la feria de entidades de Bizkaia que muestren su conocimiento en la realización de productos artesanos no estando dadas de alta en el Registro de Entidades Artesanas de Bizkaia, cuando desarrollen un oficio artesano en riesgo de extinción y destinen parte del tiempo de participación en la feria a la demostración de este oficio.

Asimismo, deberá acreditarse que más del 50% del total de entidades artesanas participantes son de Bizkaia, excepto que el número de entidades artesanas de Bizkaia que solicitaran participar en la feria no alcanzase dicho porcentaje, en cuyo caso se deberá justificar dicho extremo debidamente.

En todo caso, se permitirá una participación inferior al 15% de la participación total que corresponda a oficios no considerados como oficios artesanos en la Orden Foral 11120/2021, de 30 de noviembre, de la diputada foral de Promoción Económica, por la que se aprueba el repertorio de oficios artesanos de Bizkaia, , o en futuras disposiciones que las modifiquen o sustituyan.

c) Las actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia.

Se subvencionarán los gastos para realizar actividades de difusión y promoción de la



burutzeko gastuak, bai eta beste erakunde batzuekin batera gauzatutako proiektuak burutzeko gastuak ere, baldin eta artisautzaren bideragarritasuna aztertzeko, artisautza merkaturatzeko edota artisautza balorizatzeko badira.

d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak.

Diruz lagunduko dira Bizkaian artisautzaren kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko egindako beste jarduerak.

2. Honako hauek ez dira dirulaguntza jaso dezaketengatik joko:

a) Elkarrekin edo toki-erakundearen barneko zein kanpoko pertsonaleko gastuak, proiektuan onartutako kanpogastuaren % 20 gaindituz gero.

b) Ospakizunak, oturuntzak edo sustapen-jaiak eragindako gastuak.

c) Bidaia, ostatu eta mantenu gastuak.

d) Gastu orokor osagarriak; adibidez, administrazio-gastuak, dietak, kontsumo orokorrak (energia, ura, mezulariak, posta, garbiketa, telefonia, segurtasuna, bulegoko materiala...).

e) Zergak eta tasak, baita BEZa ere, salbu eta erakunde onuradunak ezin duenean berreskuratu edo konpentsatu.

f) Eskatzailearen eta erakunde hornitzailearen artean lotura dagoen

artesanía de Bizkaia, así como para realizar proyectos conjuntos con otras entidades, destinados al análisis de la viabilidad, a la comercialización y/o a la valorización de la artesanía.

d) Las actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector.

Se subvencionarán los gastos para realizar otras actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad de la artesanía en Bizkaia.

2. No se considerarán gastos subvencionables:

a) Todo aquel gasto de personal, propio o externo a la asociación o entidad local, que exceda del 20% del gasto externo aceptado del proyecto.

b) Los gastos producidos por celebraciones, ágapes o festejos promocionales.

c) Los gastos de viajes, alojamiento y manutención

d) Los gastos generales suplementarios tales como gastos de administración, dietas, consumos generales (energía, agua, mensajería, correo, limpieza, telefonía, seguridad, material de oficina...).

e) Los impuestos y tasas, incluyendo el IVA, excepto en el caso en que no pueda ser recuperado o compensado por la entidad beneficiaria.

f) Los gastos en los que exista vinculación entre solicitante y entidad proveedora



kasuetan gastuek ez dute dirulaguntzarik jasoko, salbu eta 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 27.7.d) artikuluan gastu horiek diruz lagungarritzat jotzeko baldintzak betetzen direnean. Ondorio horietarako, lotura dagoela ulertuko da Dirulaguntzen Erregelamendua onartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 53.2. artikuluan ezarritako kasuetan.

g) Dirulaguntzaren xede den jarduerarekin zalantzarik gabe identifikatu ezin diren gastuak.

h) Deialdi bakoitzean ezarritako exekuzio-epean fakturatzen ez diren gastuak.

i) Ezarritako justifikazio-aldia amaitu ondoren ordaindutako gastuak.

j) Merkatuko balioa gainditzen duten gastuak.

k) Merkataritza-eragiketetan egindako gastuak, baldin eta sektoreko araudi aplikagarrian aurreikusitako ordainketa-epeak bete gabe ordaindu badira, edo, halakorik ezean, 3/2004 Legean ezarritakoak bete gabe.

3. Dena dela, diruz lagun daitekeen gastuaren zenbatekoak 9/2017 Legeak kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituztenean, hau da, 15.000 euro edo gehiago hornidura eta zerbitzuen kasuan, onuradunak, gutxienez, hiru hornitzaile ezberdinen eskaintzak

cuando no se den las condiciones establecidas en el artículo 27.7.d) de la Norma foral 5/2005, de 31 de mayo, para su consideración como subvencionables. A estos efectos se entenderá que existe vinculación en los casos establecidos en el artículo 53.2 del Decreto foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones

g) Los gastos que no puedan identificarse inequívocamente con la actividad objeto de la subvención.

h) Los gastos que no se facturen en el plazo de ejecución establecido en cada convocatoria.

i) Los gastos abonados después de la finalización del periodo de justificación establecido.

j) Los gastos que sean superiores al valor del mercado.

k) Los gastos en los que hayan incurrido en sus operaciones comerciales que se hayan abonado incumpliendo los plazos de pago previstos en la normativa sectorial que resulte de aplicación, o, en su defecto, en los establecidos en la Ley 3/2004.

3. Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en Ley 9/2017 para el contrato menor, es decir sea un importe igual o superior a 15.000 € en caso de suministros y servicios, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo



eskatu beharko ditu zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, diruz lagundu daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez bada nahikoa erakunderik halakorik hornitu edo eskaintzen duenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.

4. Aurkeztutako eskaintzak justifikazioan jaso beharko dira edo, hala badagokio, dirulaguntza eskaeran, eta haien artean aukeratzeko, eraginkortasun eta ekonomia irizpideak hartuko dira kontuan, eta, proposamen ekonomiko onuragarriena aukeratzeko ez denean, aukeraketa memoria batean justifikatu beharko da espresuki.

9. oinarria. *Dirulaguntzen zenbateko individualizatua.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira behean ezartzen diren gehieneko dirulaguntza-portzentaieak eta gehieneko mugak:

tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

4. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

Base 9. *Cuantía individualizada de las ayudas.*

El importe de la ayuda se obtendrá teniendo en cuenta los porcentajes máximos de subvención y los límites máximos que se establecen a continuación:

Jarduketa/ Actuación	Dirulaguntzare n gehieneko %a/% máximo de subvención	Gehieneko erabateko dirulaguntza (eurotan)/ Subvención máxima por hecho subvencionable (€)
a) Artisautza-erakundeentzako trebakuntza-jarduerak antolatzea/ Organización de actividades de formación, dirigidas a entidades artesanas:		
Gastua, antolatutako ikastaro bakoitzeko /	75	20.000



Gasto por curso organizado.		
b) Artisautza-azokak antolatzea Bizkaian/Organización de ferias de artesanía en Bizkaia:		
7 eguneko edo gutxiagoko azoka bada/ Feria con duración inferior o igual a 7 días.	50	35.000
7 egun baino gehiagoko azoka bada./Feria con duración superior a 7 días.		45.000
c) Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak / Actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia:		
Bizkaiko artisautza ezagutzera eman eta sustatzeko jarduketak / Actuaciones de difusión y promoción de la artesanía de Bizkaia.	75	25.000
d) Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak / Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector:		
Sektorearen kudeaketa eta lehiakortasuna hobetzeko jarduketak / Actuaciones para la mejora de la gestión y de la competitividad del sector.	50	15.000

III. KAPITULUA

CAPÍTULO III

Aurrekontuko kredituak

Créditos presupuestarios

10. oinarria. Aurrekontuko zuzkidura.

1. Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak eta onurak, guztira 410.000 euro, jarraian zerrendatuko diren aurrekontu-partiden kontura ordainduko dira; ondoren adierazten diren gutxi estimatutako kopuruetan banakatuko dira, eta haien muga partida bakoitzean ezarritako guztizko kopurua izango da:

Base 10. Dotación presupuestaria.

1. Las ayudas y beneficios que puedan otorgarse en la presente convocatoria, por un importe total 410.000 euros, se efectuarán con cargo a las partidas presupuestarias, que se relacionan a continuación, desglosadas en las siguientes cantidades estimadas, teniendo como límite la cantidad total establecida en las diferentes partidas:



Urtekoa	Aurrekontuko partida	Zenbatekoa
2023	0809/G/433121/ 44300/0000 2007/0109	168.200,00
2024	0809/G/433121/ 44300/0000 2007/0109	43.000,00
2023	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	16.900,00
2024	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	1.000,00
2023	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	46.500,00
2024	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	13.500,00
2023	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	800,00
2024	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	200,00
2023	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	56.400,00
2024	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	13.500,00
2023	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	40.000,00
2024	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	10.000,00

Anualidad	Partida presupuestaria	Importe
2023	0809/G/433121/ 44300/0000 2007/0109	168.200,00
2024	0809/G/433121/ 44300/0000 2007/0109	43.000,00
2023	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	16.900,00
2024	0809/G/433121/ 44900/0000 2007/0109	1.000,00
2023	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	46.500,00
2024	0809/G/433121/ 74300/0000 2007/0109	13.500,00
2023	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	800,00
2024	0809/G/433121/ 74900/0000 2007/0109	200,00
2023	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	56.400,00
2024	0809/G/433121/ 45100/0000 2007/0109	13.500,00
2023	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	40.000,00
2024	0809/G/433121/ 43299/0000 2007/0109	10.000,00





2. Aurrekontuko partidei esleitutako kopuruak gutxi gorabeherakoak dira. Onartzen diren eskabideen arabera — eta erakunde onuradunen izaera juridikoak eta diruz lagundutako gastuen kontzeptuak askotarikoak izan daitezke—, aurrekontuko partidei esleitutako baliabide ekonomikoak partiden eta/edo arloen artean egokitu ahal izango dira, gastua aldatzeko espedientearen bidez edo espedienteen bidez. Horretarako, ez da beharrezkoa izango foru-dekretu hau aldatzea, betiere partiden zenbateko osoak ezarritako muga gainditzen ez badu. Organo emaileak argitaratuko du behin betiko banaketa emakida ebazpenaren aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Publizitate horrek ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

3. Deialdi honetan ageri den gehienezko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da eta, beraz, 5/2005 Foru Araua garatzeko dirulaguntzen erregelamendua onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren (aurrerantzean 34/2010 Foru Dekretua) 41.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitu baino lehen aldatu ahal izango dira aurrekontu-kredituak, Gobernu Kontseiluak onetsitako foru-dekretu baten bidez,

2. Las cantidades asignadas a las diferentes partidas presupuestarias tienen un carácter estimativo. En función de las solicitudes que resulten aprobadas, dada la diferente naturaleza jurídica de las entidades beneficiarias y los distintos conceptos de gastos subvencionados, los recursos económicos asignados a las partidas presupuestarias podrán readecuarse entre las partidas y/o áreas, mediante el o los oportunos expedientes de modificación de gasto, sin que sea obligatorio modificar este decreto foral, siempre que la cuantía total de las partidas no supere el importe total establecido en el mismo. El órgano concedente deberá publicar la distribución definitiva con carácter previo a la resolución de concesión en los mismos medios que la convocatoria, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.

3. La cuantía total máxima que figura en esta convocatoria tiene carácter estimado, por lo que en aplicación de lo establecido en el artículo 41.2 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005 (en adelante Decreto Foral 34/2010), los créditos presupuestarios podrán ser modificados antes de que se finalice el plazo de presentación de solicitudes, mediante decreto foral

kontuan izanda zein den, aurreikuspenen arabera, eskatutako dirulaguntzen zenbateko osoa. Hala eginez gero, eskabideak aurkezteko epea luzatu behar izango da.

4. 34/2010 Foru Dekretuaren 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, aurrekontu zuzkiduraren zenbateko osoa gehienez ere zenbateko osagarri honekin handitu ahalko da: 100.000 euro:

a) Edo zenbateko osagarria dagoenean eta zenbateko hori deialdi batzuentzat aurreikusitako zenbateko txikiagorekin ebatzitako aurreko deialdietatik datorrenean.

b) Edo emandako dirulaguntzak baino zenbateko txikiagoengatik aurreko deialdietatik eratorritako betebeharrak aitortu edo likidatu direnean.

c) Edo honakoak onetsi direlako eskuragarri dauden kredituak handitzen direnean:

- 1) Kredituak handitzeak.
- 2) Kredituak sortzea.
- 3) Kredituak sartzea.

Zenbateko osagarriaren eraginkortasuna kreditu eskuragarritasun deklarazioaren baldintzapean egongo da; deklarazioa dirulaguntzaren emakida ebatzi aurretik egin beharko da. Handitze hori organo emaileak baimenduko du eta eskuragarri dauden kredituen deklarazioa argitaratu beharko du emakida ebazpenaren

aprobado en Consejo de Gobierno, teniendo en cuenta la cuantía total de las ayudas solicitadas previstas; debiéndose, en su caso, ampliar el plazo de presentación de solicitudes.

4. Al amparo de lo establecido en el artículo 43 del Decreto Foral 34/2010, la cuantía total de la dotación presupuestaria podrá ser ampliada en un importe adicional máximo de 100.000 euros:

a) Bien cuando exista cuantía adicional proveniente de convocatorias anteriores resueltas por importe inferior al previsto para las mismas.

b) Bien cuando se hayan reconocido o liquidado obligaciones derivadas de convocatorias anteriores por importe inferior a la subvención concedida.

c) Bien cuando exista un aumento de los créditos disponibles derivado de la aprobación de:

- 1.º Ampliaciones de crédito.
- 2.º Generaciones de crédito.
- 3.º Incorporaciones de crédito.

La efectividad de la cuantía adicional queda condicionada a la declaración de disponibilidad del crédito, que deberá efectuarse en un momento anterior a la resolución de la concesión de la subvención. Dicha ampliación será autorizada por el órgano concedente que deberá publicar la declaración de créditos



aurretik deialdiaren bitarteko berberetan. Gainera, publizitateak ez du esan nahi eskari berriak aurkezteko epea irekiko denik, ezta ere ebazteko epe berria hasiko denik.

5. Deialdiko eskabide guztiak ebatzi ondoren, guztira dirulaguntzetarako emandako diru kopurua aurrekontu-muga baino txikiagoa balitz, gastubaimenaren ezeztapena tramitatuko litzateke, soberan den zenbatekoan, forudekretu hau aldatu beharrik gabe.

disponibles, con carácter previo a la resolución de concesión en los mismos medios que la convocatoria, sin que tal publicidad implique la apertura de plazo para presentar nuevas solicitudes ni el inicio de nuevo cómputo de plazo para resolver.

5. Si una vez resueltas todas las solicitudes de la convocatoria no se alcanzara el límite presupuestario máximo, se procederá a tramitar la anulación de la autorización de gasto por el importe sobrante sin necesidad de modificar este Decreto Foral.

II. TITULUA

Araubide juridikoa

11. oinarria. *Araubide juridikoa.*

1. Deialdi honetan ezarritako dirulaguntzak araudi honekin bat arautuko dira: oinarri hauek, 5/2005 Foru Araua, 34/2010 Foru Dekretua, administrazio-zuzenbideko gainerako arauak, eta, halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira

2. Era berean, ematen diren dirulaguntzak de minimis laguntzat joko direnez, honako araudi hauen pean egongo dira: Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamendua, 2013ko abenduaren 18koa, Europar Batasunaren

TÍTULO II

Régimen jurídico

Base 11. *Régimen jurídico.*

1. Las subvenciones establecidas en la presente convocatoria se regirán por las presentes bases, por la Norma Foral 5/2005, por el Decreto Foral 34/2010, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, se aplicarán las normas de derecho privado.

2. Asimismo, como las subvenciones que se concedan van a tener la consideración de ayudas minimis, están sujetas a lo establecido en el Reglamento (UE) n.º 1407/2013, de la Comisión, de 18 de diciembre de 2013, relativo a la aplicación



Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua de minimis laguntzei aplikatzeari buruzkoa, eta Batzordearen 2020ko uztailaren 2ko 2020/972 (EB) Erregelamendua, zeinaren bidez aldatzen baita 1407/2013 (EB) Erregelamendua, haren luzapenari dagokionez.

12. oinarria. *Organo eskudunak eta erakunde laguntzailea.*

1. Espedienteak Eskualde Garapenerako Zerbitzuak antolatu eta izapidetuko ditu, Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiaren agindupean.

2. Espedienteen ebaluazioa ebaluazio-batzorde batek egingo du. Batzorde hori honela osatuko da:

a) Epaimahaiburua: Eskualde Garapenerako Zerbitzuko burutza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzeko duen pertsona.

b) Kideak:

1. BEAZ SAU erakundeko Ekonomia Sustatzeko Zuzendaritza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzeko duen pertsona.

2. BEAZ SAU erakundeko Artisautzarako koordinazioa betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzeko duen pertsona.

c) Idazkaria: Eskualde lankidetzarako ataleko burutza betetzen duen pertsona edo hura ordezkatzeko duen pertsona.

de los artículos 107 y 108 del Tratado de Funcionamiento de la Unión Europea a las ayudas de minimis y el Reglamento (UE) n.º 2020/972 de la Comisión de 2 de julio de 2020, por el que se modifica el Reglamento (UE) n.º 1407/2013 en lo que respecta a su prórroga.

Base 12. *Órganos competentes y entidad colaboradora.*

1. La ordenación e instrucción de los expedientes se llevará a cabo por el Servicio de Desarrollo Comarcal bajo la dependencia de la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo.

2. La evaluación de los expedientes se efectuará por comisión evaluadora, constituida de la siguiente forma:

a) Presidencia: la persona que ocupe la jefatura del Servicio de Desarrollo Comarcal o persona que le supla.

b) Vocalías:

1º la persona que ocupe la Dirección de Promoción Económica de BEAZ S.A.U. o persona que le supla.

2º la persona que ocupe la Coordinación de Artesanía de BEAZ S.A.U. o persona que le supla.

c) Secretaría: la Jefatura de la Sección de Colaboración Comarcal o persona que le supla.



Lehendakariak kalitate-botoa izango du berdinketak ebazteko, eta idazkariak ahotsarekin eta botorik gabe jardungo du.

3. Ebaluazio-batzorde hau osatzeko orduan, kontuan hartu beharko da bi sexuen artean ordezkaritza orekatuta egotea. Horrek esan nahi du bi sexuek nahikotasunez ordezkaturik egon behar dutela, hala ezartzen baita 4/2005 Legearen 3.9. artikuluan eta 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan. Era berean, kontuan hartu behar da batzorde horretako kideak betetzen duten karguagatik direla batzordekideak, eta, beraz, beharrezkoa izanez gero, kasu horietarako araudi horretan jasotako salbuespena aplikatuko da.

4. Espedienteak ebaztea Ekonomia Sustatzeko foru diputatuari dagokio, instrukzio-organoak eta Lurralde Lehiakortasuna eta Turismoa Bultzatzeko Zuzendaritza Nagusiko titularrak proposatuta, ebaluazio-batzordeak txostena eman ondoren.

5. BEAZ SAU sozietateak erakunde laguntzaile gisa jardungo du, Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzaz hitzarmenean xedatutakoa betez, eta hitzarmen horretan eta oinarri arautzaile hauetan adierazten diren eginkizunak beteko ditu. Era berean, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudiaren ondoriozko betekizunak eta betebeharrak bete beharko ditu.

La Presidencia tendrá voto de calidad para dirimir los empates y la Secretaría actuará con voz y sin voto.

3. En la composición de la presente comisión evaluadora se tendrá en cuenta una representación equilibrada de ambos sexos, entendiendo que ello supone que al menos ambos estén representados, tal y como está previsto en el artículo 3.9 de la Ley 4/2005 y el artículo 44 de la Norma Foral 4/2018. Asimismo, debe tenerse en cuenta que las personas que forman parte de esta comisión lo son por el cargo que ocupan por lo que de ser necesario se aplicará la excepción contenida en la referida normativa para estos casos.

4. La resolución de los expedientes competirá a la diputada foral de promoción económica a propuesta del órgano instructor y de la persona titular de la Dirección General de Competitividad Territorial y Turismo, previa emisión de informe por la comisión evaluadora.

5. La sociedad Beaz S.A.U. actuará como entidad colaboradora en cumplimiento de lo dispuesto en el Convenio de Colaboración suscrito con la Diputación Foral de Bizkaia correspondiéndole la realización de las funciones que se indican en el citado convenio y las recogidas en las presentes bases reguladoras. Asimismo, deberá cumplir los requisitos y obligaciones que se deriven de la



6. Lankidetza-hitzarmena alde zurretik suntsiarazten bada, hitzarmena suntsiarazteko akordioan jasotzen diren jarraibideei jarraituko zaie.

13. oinarria. *Arau-haustea eta zehapenak.*

1. Arau-haustea eta zehapen araubidea 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren IV. tituluan xedatzen dena izango da.

2. Aplikatu beharrekoa izango da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea (aurrerantzean 39/2015 Legea) ezarritakoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 40/2015 Legea ezarritakoa, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zigortzeko ahalmenari buruzko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 20ko 2/1998 Legea aurreko manuari kontra egin gabe xedatzen dena ere.

14. oinarria. *Ez-betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

1. Jarraian aipatzen diren kasuetan, itzuli egin beharko dira jasotako dirulaguntza, dirulaguntza ordaindu den unetik itzultzea erabakitzen den datara bitartean dagozkion berandutza-

normativa de subvenciones en vigor.

6. En caso de resolución anticipada del Convenio de Colaboración se estará a las instrucciones que se recojan en el acuerdo de resolución del citado convenio.

Base 13. *Infracciones y sanciones*

1. El régimen de infracciones y sanciones será el dispuesto en el título IV de la Norma Foral 5/2005 y en el título IV del Decreto Foral 34/2010.

2. Será de aplicación lo previsto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (en adelante Ley 39/2015), en la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público y en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en lo que no se oponga a las anteriores.

Base 14. *Incumplimiento y reintegro*

1. Procederá el reintegro de la subvención recibida y la exigencia del interés de demora correspondiente desde el momento del pago de la subvención hasta la fecha en que se acuerde la



interesak, eta, hala badagokio, galdu egingo da dirulaguntza kobratzeko eskubidea.

a) Oinarri hauetan, emakidaren ebazpenean edo aplikatu beharreko araudian ezarritako betebeharrak edo baldintzaren bat betetzen ez denean.

b) 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo 34/2010 Foru Dekretuan aurreikusitako kausaren bat gertatzen denean.

2. Itzuli beharreko diru-kopuruak zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira, ondorio guztietarako.

3. Itzuli beharreko zenbatekoei aplikatu beharreko berandutze-interesa 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan aurreikusitakoa izango da.

4. Dirua itzultzeko prozedura 5/2005 Foru Arauaren II. tituluan eta 34/2010 Foru Dekretuaren III. tituluan xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

5. Dirulaguntza emateko ezarritako baldintzak ez betetzeak mailakatzeko irizpideak honako hauek izango dira:

a) Dirulaguntza ematea eragin zuen proiektuaren gastua ez bada xedatzen deialdian ezarritako epean, emandako dirulaguntza osoa galduko da.

b) Dirulaguntza ematea eragin zuen

procedencia del reintegro y, en su caso, la pérdida del derecho al cobro de la subvención:

a) Cuando se incumpla alguna de las obligaciones o condiciones establecidas en las presentes bases, en la resolución de la concesión o en la normativa de aplicación.

b) Cuando se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, o en el Decreto Foral 34/2010.

2. Las cantidades a reintegrar tendrán la consideración de ingresos de Derecho Público a todos los efectos.

3. El interés de demora aplicable a los importes a reintegrar será el previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005

4. El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en el en el título II de la Norma Foral 5/2005, y en el título III del Decreto Foral 34/2010.

5. Los criterios para la graduación de los incumplimientos de las condiciones impuestas con motivo del otorgamiento de la subvención serán los siguientes:

a) El incumplimiento de la disposición del gasto para la actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, conllevará la pérdida total de la subvención concedida.

b) La disposición parcial del gasto de la





jarduketaren gastuaren zati bat soilik xedatzen bada deialdian ezarritako epean, galdu egingo da xedatu ez den zatiari dagokion dirulaguntza, betiere xedapen partzial horrek diruz lagundutako jarduketaren helburua lortzea eragozten ez badu.

c) Jarduketa gauzatzeko epeak betetzen ez badira, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, berandutze-interesekin batera. Hala ere, jarduketak ez badira amaitu epe orokorrean edo luzapenepean, baina zatiren bat epe barruan egin bada, epe barruan egin ez den zatiren dirulaguntzaren zenbatekora mugatuko da itzultzeko betebeharra, baldin eta gauzatze partzial horrek ez badu eragozten jarduketaren xedea lortzea.

d) Ekintzak edo gastuak gauzatu edo justifikatzean ez-betetze partziala gertatzen bada, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera zehaztuko da, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzen entitatea eta ez-betetze maila kontuan hartuta.

e) Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada, aldi berean beste laguntza batzuk jaso direlako -5/2005 Foru Arauaren 18.3. artikuluan jasotako balizkoa-, behar denaren gaineratik jasotako kopurua itzuli beharko da, eta kopuru horri dagokion berandutze-interesa ezarriko zaio. Berdin-berdin jokatu da de minimis baldintzak betetzen ez badira

actuación para la que se otorgó la subvención, en el plazo establecido en la convocatoria, dará lugar a la pérdida de la subvención correspondiente a la parte no dispuesta, siempre que dicha disposición parcial no impida la consecución del objeto de la actuación subvencionada.

c) El incumplimiento de los plazos de ejecución de la actuación conllevará la obligación de reintegro de las cantidades percibidas junto con los intereses de demora. No obstante, cuando las actuaciones no hayan sido terminadas en el plazo general o en el de prórroga, pero alguna parte de ellas hayan sido realizadas en plazo, la obligación de reintegro se limitará a la cuantía de la subvención de la parte no realizada en plazo, siempre que dicha ejecución parcial no impida la consecución del objeto de la actuación.

d) La cantidad a reintegrar en caso de incumplimiento parcial en la ejecución o en la justificación de las acciones o gastos vendrá determinada, con arreglo al criterio de proporcionalidad, atendiendo a la entidad y grado de incumplimiento de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de la subvención.

e) En el supuesto de sobrefinanciación por concurrencia con otras ayudas contemplado en el artículo 18.3 de la Norma Foral 5/2005, procederá el reintegro por la cantidad excedida, a la que se aplicará el correspondiente interés de demora. En idéntico sentido se procederá en caso de incumplimiento de los requisitos de minimis por haber

baimendutako laguntzak gainditzeagatik.

f) Hedapen, gardentasun, hizkuntza koofizialen erabilera, genero berdintasun eta bestelako gizarte politika betebeharrak betetzen ez badira kobratzeko eta/edo itzulketa partziala jasotzeko eskubidea galduko da gehienez ere emandako dirulaguntzaren % 10eko zenbatekoan. Kasu bakoitzarentzat adierazitako gehieneko mugaren barnean emandako dirulaguntzaren ehunekoa zehazteko proportzionaltasun printzipioa aplikatuko da honako irizpideen arabera: bete ez diren betebeharrak, horien tamaina, onuradunak horiek bete edo bete ez dituen, ez betetzearen arrazoiak eta ez betetze horiek nola eragiten duten helburuak lortzean, jarduera egitean, proiektua egikaritzean edo dirulaguntzaren emakida oinarritzen duen jokaera izatean.

g) Oinarri hauetan ezarritako gainerako betebeharrak betetzen ez badira, emandako dirulaguntza zati batean galduko da eta, itzuli beharreko zenbatekoa proportzionaltasun-irizpidearen arabera ezarriko da, ez-betetzeak lortu nahi den helbururako duen garrantzia eta interes publikorako eragiten duen kaltea kontuan hartuta.

15. oinarria. *Dirulaguntza erakunde onuradunaren ekimenez itzultzea*

1. Onuradunak berak Administrazioaren

superado las ayudas permitidas.

f) El incumplimiento de las obligaciones de difusión, transparencia, uso de lenguas cooficiales, igualdad de género y otras políticas sociales conllevará la pérdida del derecho al cobro y/o el reintegro parcial de hasta un máximo del 10% de la subvención concedida. A la hora de determinar para cada caso concreto el porcentaje de la subvención concedida dentro del límite máximo indicado, se aplicará el principio de proporcionalidad atendiendo a los siguientes criterios: las obligaciones incumplidas, la entidad de las mismas, la actuación de la persona beneficiaria tendente o no a su cumplimiento, las causas del incumplimiento y como afectan dichos incumplimientos al modo en que se han de conseguir los objetivos, realizar la actividad, ejecutar el proyecto o adoptar el comportamiento que fundamenta la concesión de la subvención.

g) El incumplimiento del resto de las obligaciones establecidas en las presentes bases conllevará la pérdida parcial de la subvención concedida y la cantidad a reintegrar se fijará con arreglo al criterio de proporcionalidad atendiendo al grado de relevancia del incumplimiento para la finalidad perseguida y el perjuicio para el interés público.

Base 15. *Devolución de la subvención a iniciativa de la entidad beneficiaria*

1. Se entiende por devolución voluntaria



aurretiazko errekerimendurik gabe egindakoa da borondatezko itzulketa.

2. Borondatezko itzulketa egiten denean, Administrazioak dagozkion berandutze-interesak kalkulatu 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoaren arabera eta pertsona edo erakunde onuradunak behin betiko itzulketa benetan egin duen unera arte.

